

# IRAGARKIA

2024ko martxoaren 21ean, **2024 - 000001364 ALKATETZA DEKRETUA** onartu dela komunikatzen da.

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2024 000001364

Espediente-zenbakia: 2024/EPA\_ESP\_0008

## Gaia

128/2024 Prozedura Arrunta: Letratuak izendatzea eta Bilboko Lan-arloko 12 zk.ko Epaitegira espediente administratiboa bidaltzea

## Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen ditu.

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 10ean, Udal honek auzietarako ahalorde orokorra sinatu zuen Juan Antonio Perez Dapena notarioaren aurrean, GRUPO UNIVE Servicios Jurídicos defentsa-zerbitzuko letratu eta prokuradoreak izendatzeko.

Hirugarrena: 2022ko azaroaren 15ean Bizkaiko Foru Aldundiak 20/2021 Legearen eta haren kudeaketaren esparruan oinarrien eredia egiteko irizpideei buruzko txostena igortzen dio Bermeoko Udalari.

Laugarrena: Bermeoko udaleko negoziazio mahaiak izandako bilera ezberdinetan Bermeoko Udalaren egonkortze prozesu konkretua definitzen da.

Bosgarrena: 2022ko abenduaren 30ean, 248 zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Bermeoko udaleko egonkortze prozesuaren oinarriak publikatzen dira.

Seigarrena: 2023ko otsailaren 16an, demandatzaileak Bermeoko udaleko lan orientatzaile moduan lan egindako aldiaren ziurtagiria jasotzen du. Danatara 4.391 egun.

Zazpigarrena: 2023ko martxoaren 23an, demandatzaileak 3581/2023 sarrera erregistrodun idazti bidez, bere bidegabeko lan-egoera aztertze eskaera egiten du. Konkretuki: "Salbuespen gisa eta bakarrik lan orientatzaile lanpostuaren egonkortzerako, azpikontrataturako langile gisa dudan esperientzia kontuan izatea."

Zortzigarrena: 2023ko apirilaren 18ko 1562/2023 alkatetza dekretu bidez, demandatzailearen eskaera ez da onartzen.

Bederatzigarrena: 2024ko martxoaren 19an, Bilboko Lan-arloko 12 zk.ko Epaitegiak 128/2024 Prozedura Arrunta jakinarazten dio Bermeoko Udalari.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F25BC00A5C8N0Z3R2O2

### Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024  
06:23:13  
[-RR.DD.-] REGISTRO DE DOCUMENTOS SALIDA 01 2024 4055 - 25/03/2024 06:25

SALIDA: 20244055

Fecha: 25/03/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F25BC00A5C8N0Z3R2O2





### Argudioak

Lehenengoa: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 68.1 artikulua arabera, udal honek bere ondasunen eta eskubideen alde egiteko legezko beharrezko ekintzez baliatzeko betebeharra dauka.

Bigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.k artikulua arabera, ekintza administratiboez eta legalez baliatzea, kasu honetan Alkatzari dagokio.

Hirugarrena: Kontuan hartzen dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21 eta 68.1 artikuluek eta haiekin bat datozen aginduek aurreikusitakoa.

### Erabakia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGOA: Bermeoko Udala alderdi demandatu gisa personatzea eta Epaitegira espediente administratiboa bidaltzea.

BIGARRENA: Epaitegi eta Tribunalen aurrean, Udal honen eta defentsarako ahalak, GRUPO UNIVE Servicios Jurídicos enpresari ematea.

HIRUGARRENA: Zuzenbidean dagozkion bezain ahal zabalak ematea izendaturako Letratu eta Prokuradoreari, Udal honetako prozedura judizialean bete beharreko defentsa eta ordezkapen-lanak haien gain hartu ahal izateko.

Letratuak:

- MARIANO CARLOS HERNANDEZ ARRANZ (Madril).
- JOSE ANGEL MANTINEZ FERNANDEZ (Madril).
- DIEGO LAHUERTA CANALES (Kantabria).
- AINHOA MARTIN ARENAS (Bizkaia).

Prokuradorea:

- MARIA JOSE GONZALEZ COBREROS (Bizkaia).

LAUGARRENA: Demandan interesdunak diren pertsoneri erabaki hau jakinaraztea, kodemandatu moduan lekukotzeko aukera izan dezaten.

BOSGARRENA: Dekretu honen erabakia hurrengo Osoko Bilkurari helaraztea, baita Tokiko Gobernu Batzarrari ere.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F25BC00A5C8N0Z3R202

#### Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024  
06:23:13  
[-RR.DD.-] REGISTRO DE DOCUMENTOS SALIDA 01 2024 4055 - 25/03/2024 06:25

SALIDA: 20244055  
Datea: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F25BC00A5C8N0Z3R202





## INTERESDUNEN LEKUKOTZEA

**GAIA:** 128/2024 Prozedura Arrunta. Bermeoko udaleko Lan orientatzaile plazen inguruan, egonkortze prosezuan lortutako puntuazioaren aurkako helegitea.

**LEKUKOTZEA:** Prozedura honetan interesdunek, AAJLko 49.1 artikulua arabera, errekurtsioan pertsonatzeko aukera daukate.

- **Epatua izateko epea:** Jakinarazpena jasotzen denetik, bederatziz lanegun.
- **Demandatzailea:** Iraide Eguireun Goiri.
- **Demandatua:** Bermeoko Udala.
- **Prozedura:** 128/2024 Prozedura Arrunta.
- **Epaitegia:** Bilboko Lan-arloko 12 zk.ko Epaitegia.
  - Helbidea: Barroeta Aldamar 10, 5º - 48001, Bilbao (Bizkaia)
  - Telefonoa: 94.401.67.07
  - Emaila: [social12.bilbao@justizia.eus](mailto:social12.bilbao@justizia.eus)

ALKATEA

Nadia NemeH Shomaly

Orri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F25BC00A5C8N0Z3R2O2

### Sinatua eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 06:23:13  
[-RR.DD.-] REGISTRO DE DOCUMENTOS SALIDA 01 2024 4055 - 25/03/2024 06:25

SALIDA: 20244055  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

